Xedapen Orokorrak

NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA SAILA

3069

AGINDUA, 2006ko maiatzaren 31koa, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailburuarena, hegazti-gripetik babesteko kautelazko neurri gisa Euskal Autonomia Erkidegoko azoka eta merkatuetan hegaztien presentziaren debekua bukarazten duena.

Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailburuaren 2005eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoan hegazti-gripe izeneko animalien gaixotasunetik babesteko kautelazko neurriak ezarri ziren (EHAA, 214. zk., 2005eko azaroaren 10ekoa) Era berean, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailburuaren 2006ko martxoaren 20ko Aginduaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoan hegazti-gripe izeneko animalien gaixotasunetik babesteko kautelazko neurri osagarri berriak ezarri ziren (EHAA, 60. zk., 2006ko martxoaren 27koa).

2005eko azaroaren 2ko Aginduan ezarritako lehen neurria honako hau izan zen: Euskal Autonomia Erkidego osoan hegaztitegiko eta beste edozein motatako hegaztiak feria, azoka, erakustoki, erakusketa edo lehiaketetara eramatea debekatzea. Nolanahi ere, agindu horren seigarren ebatzian aurreikusitakoaren arabera, ezarritako neurriak aldatu edo kendu egingo ziren egoera epizootikoaren eta gaixotasunaren bilakaeraren arabera.

Gaixotasunak ez du inolako eraginik izan Euskal Autonomia Erkidegoan, hegaztien migrazio-garaia amaitu da eta, beraz, gaur egun dagoen arrisku sanitarioa txikia da. Hori dela-eta bidezkoa eta komenigarria da debeku hori bertan behera uztea. Alde horretatik, Hegazti Gripearen Jarraipenerako Batzordeak, non foru-aldundiek ordezkatuta dauden, maiatzaren 25ean izandako bileran gai horri ekin zion eta aho batez erabaki zuen debeku hori kentzea gomendatzea.

Horiek horrela, hauxe

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Feriak eta azokak.

Euskal Autonomia Erkidegoan hegazti-gripe izeneko animalien gaixotasunetik babesteko kautelazko neurriak ezarri dituen Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailburuaren 2005eko azaroaren 2ko Aginduaren lehen ebatzian jasotako kautelazko neurria indargabetzea. Izan ere, neurri horren bitartez Euskal Autonomia Erkidego osoan hegaztitegiko eta beste edozein mota-

Disposiciones Generales

DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA, PESCA Y ALIMENTACIÓN

3069

ORDEN de 31 de mayo de 2006, del Consejero de Agricultura, Pesca y Alimentación, por la que se levanta la prohibición de la presencia de aves en ferias y mercados de la Comunidad Autónoma del País Vasco como medida cautelar frente a la influenza aviar.

Mediante Orden de 2 de noviembre de 2005, del Consejero de Agricultura, Pesca y Alimentación, se establecieron en la Comunidad Autónoma del País Vasco diversas medidas cautelares de protección frente a la enfermedad animal denominada «influenza aviar» (BOPV n.º 214, de 10 de noviembre de 2005). Asimismo, mediante Orden de 20 de marzo de 2006, del Consejero de Agricultura, Pesca y Alimentación, se establecieron nuevas medidas cautelares complementarias (BOPV n.º 60, de 27 de marzo de 2006).

La primera de las medidas establecidas en la Orden de 2 de noviembre de 2005 fue la de prohibir en la totalidad de la CAPV la presencia de aves de corral, y de cualquier otro tipo, en ferias, mercados, muestras, exhibiciones y concursos. Sin embargo, en el Resuelvo sexto de esa misma Orden se prevé que las medidas serían modificadas o levantadas atendiendo a las circunstancias epizoóticas y a la evolución de la enfermedad.

La nula incidencia de la enfermedad en la Comunidad Autónoma del País Vasco, la finalización de la temporada migratoria de aves y, en consecuencia, el bajo riesgo sanitario existente en la actualidad, hace posible y aconsejable el levantamiento de dicha prohibición. En este sentido, la Comisión de Seguimiento de Influenza Aviar, en la que están representadas las Diputaciones Forales, en su reunión de 25 de mayo abordó esta cuestión y acordó por unanimidad recomendar el levantamiento de tal prohibición.

En su virtud,

RESUELVO:

Primero.– Ferias y mercados.

Dejar sin efecto la medida cautelar de prohibir en la totalidad de la CAPV la presencia de aves de corral, y de cualquier otro tipo, en ferias, mercados, muestras, exhibiciones y concursos, contenida en el Resuelvo Primero de la Orden de 2 de noviembre de 2005, del Consejero de Agricultura, Pesca y Alimentación, por la que se establecen en la Comunidad Autónoma del País Vas-

tako hegaztiak feria, azoka, erakustoki, erakusketa edo lehiaketetara eramatea debekatu zen.

Bigarrena.– Neurriaren bilakaera.

Agindu honetan hartutako neurria aldagarria da egoera epidemiologikoaren eta gaixotasunaren bilakaeraren arabera, Hegazti Gripearen Jarraipenerako Batzordeari eta foru-aldundiei aholkua eskatu ondoren, eta Euskal Autonomia Erkidegoko hegazti-aziendarekiko arriskuaren bilakaera kontutan izanda.

Hirugarrena.– Errekurtsoak.

Administrazio-bidea agortzen duen Agindu honen aurka interesdunek aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailburuari hilabeteko epean. Bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezakete Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epearen barruan. Kasu bietan, Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasiko da epea.

Laugarrena.– Ondorioak.

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik bertatik izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2006ko maiatzaren 31.

Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailburua,
GONZALO SÁENZ DE SAMANIEGO BERGANZO.

co diversas medidas cautelares de protección frente a la enfermedad animal denominada influenza aviar.

Segundo.– Evolución de la medida.

La medida adoptada en la presente Orden podrá ser modificada atendiendo a las circunstancias epidemiológicas, a la evolución de la enfermedad y al riesgo para la cabaña avícola de la CAPV, previa consulta con la Comisión de Seguimiento de la Influenza Aviar y con las Diputaciones Forales.

Tercero.– Recursos.

Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, podrá interponerse recurso potestativo de reposición ante el Consejero de Agricultura, Pesca y Alimentación en el plazo de un mes o directamente recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Cuarto.– Efectos.

La presente Orden surtirá efectos el mismo día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 31 de mayo de 2006.

El Consejero de Agricultura, Pesca y Alimentación,
GONZALO SÁENZ DE SAMANIEGO BERGANZO.

Agintariak eta Langileria

Oposaketak eta Lehiaketak

OGASUN ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

3070

EBAZPENA, 2006ko ekainaren 8koa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko 2000ko enplegu publikorako eskaintzako erdi-mailako teknikarien kidegoko Hizkuntza Normalkuntzako Teknikari izateko hautaketa-prozesuko hautatutakoen eta esleituko diren lanpostuen behin betiko zerrenda argitara ematen duena.

Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2000ko ekainaren 22ko Aginduaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean karre-

Autoridades y Personal

Oposiciones y Concursos

DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

3070

RESOLUCIÓN de 8 de junio de 2006, del Director del Instituto Vasco de Administración Pública, por la que se hace pública la relación definitiva de seleccionados y puestos objeto de adjudicación del proceso selectivo de ingreso en el Cuerpo de Técnicos Medios de Normalización Lingüística correspondiente a la oferta pública de empleo para el año 2000 de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Mediante Orden de 22 de junio de 2000, de la Consejera de Hacienda y Administración Pública, se aprobaron las bases que han de regir los procesos selectivos